

Agarre Berri (Arre berri)



IRUIN MENDIZABAL familia

ARRE BERRI Saturdi auzoko baserria da. Ingu-
ruko paraje eta soro izenen artean daude *Atai*,
Etxeburu-goiko, *Luberri*, *Izpitarte*, *Baratzondo be-
koa*, *Bordate*, *Mitxela*, *Txakalato*, *Elizbaso*.

Etxe jabe dira, aitonak erosi baitzuen. Etxea oso zaharra zenez, 1965 inguruan erabaki zen berria egi-
tea, eta horregatik eman zioten *Arre berri* izena.

Auzorako bidea eta etxerainokoa 1955ekoa da. Etxe-
tik ordu erdia behar zuten laneraino. Eskolara joateko
auzo guztikoek bidea elkarrekin egiten zuten.

Xebastian Iruin eta Joxepa Antonia Mendizabal 1939an
ezkondu ziren Arantzazun. Otordua Oñatin egin zuten
familiakoekin, eta auzokoekin Zaldibin. Xebastian Sa-
turdi baserriko semea zen, eta ezkondu zirenean ama
eta bi anai-arreba bizi ziren bertan.

Lau seme-alaba izan zituzten: Joanita, Antonio, Mari
Karmen eta Luix.

Beraien seme Antonio Iruin 1970ean ezkondu zen
Mari Tere Garmendia, Itsasondoko alabarekin. Ar-
tean aita-amak eta bi anai-arreba bizi ziren etxean.
Itsasondon ezkondu eta Ataungo *Bittorre*nean egin
zuten otordua, eta eztaibidaian Iruñea, Zaragoza,
Bartzelona, Balentzia eta Benidorm pasa zituzten.

1955etik aurrera Mari Karmen, alaba, Beasaingo *In-
dar* fabrian hasi zen lanean. Egunero joan-etorrian
ez ibiltzeagatik izebarekin geratzen zen Beasainen.
Antonio, berriz, 1957an hasi zen Agustín Irazustaba-
renarekin obran lanean.

Ezkondu arte artzain ibili zen Antonio. Gazteluko *Au-
sokoin* egoten zen, neguan etxe inguruan, eta Gabi-
rin ere egoten zen.

Bazituzten zortzi behi, txekorrak, behorrak eta lau
txerri. Baratzea etxerako egiten zuten eta Ordiziara
eramaten zituzten saltzera oilaskoak, arrautzak eta
untxiak.

Bi seme-alaba izan dituzte: Edurne eta Andoni

Informazio emaila:
Antonio Iruin

Baserriaren arrastoa idatzietan

Urreta auzoan *Agirre* etxe bat baino gehiago
dira, eta *Urretak* ere bat baino gehiago
ageri dira, 1783an dokumentatua, Aralar
eta Enerioko sailak medio sortutako auzian
Joseph Angel de Agirianori emandako
boterea emateko egindako bileran
ordezkatuen artean. Agirre Urretatik hiru
ordezkari agertu ziren, bertan hiru etxebizitza
izan zitezkeen seinale.



Joxepa Antonia Mendizabal (ama),
Xebaxtian Iruin (aita), Anastasio Otegi
eta Joxe Inazio Araneta.



Bittori (izeba),
Maria eta Kotsuelo.



Antonio Iruin eta Mari Tere Garmendia.



Joxepa Antonia, Edurne eta Andoni bilobekin.